

ASTEKO GAIA TXANKAKUA MERKATARI ELKARTEAREN IV. FERIAREN ERREPASOA
KULTURA AIASTIA AUZOKO JAIK • KIROLA HAUNDIREN AURKEZPENA

BARREn

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko irailaren 24a/XII. urtea/502. zkia

*Yoga,
norbere burua ezagutzeko biderik motzena*

denolan

AHOLKULARITZA

Orain Elgoibarren!



**Astelehenean, hilak 27,
gure ateara irekiko ditugu**

ENPRESEN AHOLKULARITZA OSOA

- Laborala
- Fiskala
- Kontabilitatea
- Enpresen eraketak, desegiteak...

P.M. Urruzuno, 31 beheak

Tel.: 943 74 18 00

Faxa: 943 74 17 60

ELGOIBAR (Osasun zentruaren aurrean)

Bidebarrieta, 38 - 40 beheak

Tel.: 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41

EIBAR



Ez dira zaharrak berri

Hemen ez dago telebistarik. Irratiak zarata bakarrik egiten du. Gehienera soinua. Ez naiz egunkariekin gogoratzen. Ezta haiek nirekin ere.

Lagunek ez didate txutxumutxuei buruz hitz egiten. Izena galdetzen didate; edo zer moduz gehienera.

Paretetako kartekek kolore politikak dituzte.

Ez dago tabernarik ez dauden txikiteroek ez dagoen ardo bereziaz hitz egin dezaten.

Dendariak irribarrea eskaini eta kanbioa soilik itzultzen dizute.

Kantuekin ezpainak mugitzen ditut.

Ile apaindegian artaziak bakarrik entzuten dira kris-kras.

Jangelan platerak klin-klan.

Korridorean oin hotsak tipa-tapa.

Parrandetan inor ere ez topa-topa.

Eta kalean denak tapa-tapa.

Hemengo izotzezko begiradak ez dira sekula urtzen.

Ez dago berri handirik.

Txikiren bat, lantzean-lantzean.

Suedia hegoaldeko zuhaitzek iparraldekoek baino enbor okerragoak dituzte.

Kopenhageko sirenatxoak ikusteko antolatutako barku-txangoetan sirenatxoaren bizkarra bakarrik ikus daiteke.

Amonak ea hemen ere igandea zen galdetu zidan joan zen igandean.

Bihurgunerik gabeko errepide luzeetan begiak itxita paseatzea dohainik da.

Psikologiako irakasleak zenbaki bat idatzi du arbelean: 9703. "Saiatu ahazten" esan digu.

Ezin izan dut.

Ez, ez dira zaharrak berri.

Uxue Alberdi



Udazken epela

Udazkenean sartuta, kurtso berri bat, politikari profesionalek dioten moduan, nahiz eta urtero urtero suspenditu hor diraute. Udako lozorrotik iratzarri bezain pronto, dudatan gelditu naiz, ia denboran atzera egin dudana edo ongi esnatu gabe nagoen oraindik, 80. hamarkadan bizi naizela iruditzen baitzait. Gero eta kresta gehiago ikusten dira, hori bai punkiak eskas, orpobeltzak neguan non sartzen dira? parlamento vaskongadoan iruzurra prest abendu alderako;buzo, kasko, musuzapiak aurpegian/ sua ta kea deustuko zubian/ tuerkak gomazko piloten kontra/ eutsi gogor, eutsi gogor Euska... La Naval; demokraziaren aita berriro lehendakarigai, geologoren batek azalduko balit nola litekeen kretazioko fosil batek horrela bizi irautea? Europako herririk militarizatuena izaten jarraitzen du, pare bat urte barru 13.000 kolore ezberdinetako polizia, militarrek, bizkarzainak... kontutan hartu gabe; Txibatoak ere hor diraute, gaur egun telefono mugikorrez baliatuz egiten dutelarik beraien lana. Eta gure herrian? Antzerako parezido.

Nahiko astoratu ditu baztarrak alkatesaren azken erabakiak. Batetik trafikoaren aitzaki merkea, hobe litzake oinezkoentzako laga ostegun goiza ibilgailuei preferentzia eman ordez, zamaketa guneak errespetatuz transportistek ere, ez lukete arazorik izango euren lana egiteko. Bestetik arkitektura barrokoaren ez dakit zer ta bla bla, alde zahar gabe gelditzeko zorian gaude, etxeak eraberritu beharrean, blaut bota eta berria egin, lehengoaren itxura mantenduko balute behintzat! Eta noski merkatuaren aldaketak herriko komertzio txikiei nola eragiten dien, aurretik nahiko astinduak gune komertzial handien eraginez, merkaturik ez=jenderik ez=salmentarik ez. Baina hemen bakarrik berak nahi duanaz hitzegin behar denez ixildu egin beharko, ba ez! Boteredunak ere ez dabilta batere pozik BARREN-en azken aldian agertzen diren kontuekin, gustuko ez dituzten gauzak irakurtzean hori gertatzen da.

Eta ahaztu aurretik militarrek ze baimen dute herri inguruan maniobretan ibiltzeko eta lur artzeko (duela 3 aste Lerun-txikin)? Eta Albitxurin lurperatutako Lindanearekin zer? Erantzun gabeko galderak izango dira berriro ere, puff!, gaixo nagoela uste dut, erizain bat hortik?

Nestor Fuente

asteko notiziario

Kexak.....	5
motz Motz.....	8
gehigarria.....	13
kiROLak.....	28

Atal hauek ez dira BARRENen editorrialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandatan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluralltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriaz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Oharra

Joan zen asteko aleko azalean (501. znbk.) gaizki jarri genuen protagonisten abizena. Arrizabalaga izan beharrean Arrillaga zen. Barkatu hanka sartzea.

KALEA BERRESKURATU

Elgoibarren bizi naiz nire herria delako, eta bertako biztanleak gustatzen zaizkidalako, baina tamalez herria oso egoera kaxkarrean uzten ari garela aitortu behar dut. Utopia bat da, baina ederra izango litzateke Udalak denontzako aparkalekuak aurreikusten dituen herri batean bizitzea, (herritarrentzat eta gure dendetara etortzen diren kanpotarrentzat aparkalekuak).

Parkeren bat dagoen herria izatea, (haur gizajoak, non jolasten dute egun?).

Gazteak Play Station-ean jolastu eta inkomunikaturik bizi beharrean, asteburuetan beharbada sustantziaren bat hartuz gaindituko duten inkomunikazioa, elkarrekin biltzeko Gaztetxe bat daukaten herria.

Herriaren erdigunean azoka bat daukan herria, izan ere, produktuak saltzeaz gain, azokak jendearekin erlazioatzeko aukera eskaintzen baitu.

Azken finean, nire alabek dioten bezala “kalea berreskuratu”.

Ez dut uste diru falta denik honen arrazoia, gure herriari kaleetan urrezko baldosak jartzeko adina diru sortu baitio Estatuari. Zer da gertatzen dena, orduan?

I. B. A.
DNI 72564196R

AUTOAK ZIZTU BIZIAN URASANDIN

Urasandiko bizilagun bat naiz, eta kexa publiko bat egin nahi dut, Udalean jarri ditudan kexa guztiak ez dituztelako kontuan hartu. Askotan joan naiz udaletxera Urasandin autoak nahi duten moduan ibiltzen direla salatzen: batzuk espaloi gainean aparkatzen dute, beste batzuk oso azkar ibiltzen dira...

Salaketak idatziz jarri ditut, alkateak irakur ditzan, eta honek badauka nire salaketen berri. Azkenekoz esan nion ezbeharren bat gertatu arte ez zutela irtenbiderik jarriko, eta ezbeharra gertatu da. Joan zen irailaren 14an mutil gazte batek 8 urteko neskatxa bat harrapatu zuen bere autoaz Urasandiko zebrabide batean. Ea ostegunetako azoka Plaza Handitik kendu nahi duten bezala, Urasandiko trafiko arazoari ere irtenbideren bat bilatzen dioten.

L.M.
72575522

Urruzunoren begi ezkutua Itxaropena



Presoak, denborak alokairuan utzitako epea darabil arnasteko, xedeak daramala irentsita.

Partiturei bizkar emanez ikusten du geroa, ez zero ez infernu, soilik entzuna izatearen bizia. Bukaerak, ez duelako puntu eta apartez idazten. Bukaeran, odolek, ahitua zer arnastu alferrik bilatzen dutelako, malkoen torturapean, itxaropenak heriotza nahi duela aitortzen duelako. Horrela, isiltasun hautsien lurraldean, askatasuna bilatzearen aitzakia inozoez baliatuz, presoak ihesean jarraitzen du, eta gauero lokartzean ernai dakusa itxaropena.


Maite Uriarte

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZALEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue ZUZENDAZALEA Unai Villena KOLABORATZALEAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.




KEXAK

◆ **Merkatu Plaza atzeko zubi berriko irteera ondo bukatu gabe dagoela** esan digu herritar batek: “Merkatu Plaza atzeko zubia amaituta dago, baina oraindik ere, detaile batzuk falta zaizkio. Zubiaren hasiera bukatu gabe dago. Hainbeste lan egin ostean, pena izango litzateke zati hori horrela uztea”.



◆ **Herritar batek Deba ibaian botatzen dituzten zikinkeriei buruz kexatzeko deitu digu**, “tamalez ez da gai honen inguruan kezkatzen naizen lehen aldia, eta zoritxarrez azkena izango ez denaren susmoa daukat. Ibaira begirada bat botatzea nahikoa da objektu arraroren bat aurkitzeko: aulki bat, ohe bat izan zenaren arrastoak edo ibaiaren ekosistemari ez dagokion edozein objektu arraro. Abuztuan ibaiak jasan zuen kutsadurak Deba ibaiaren bizirik dagoela frogatu zigun, ehunka izan baitziren hildako angila eta arrainak. Arrazoi gehiago horrelako atentatu ekologikoak gaitzesteko”.



◆ **Herritar batek esan digunez, Bernardo Ezenarro kalean auto mordoak egoten da bigarren ilaran aparkatuta, eta arazo handiak egoten dira bertatik pasatzeko**: “Bernardo Ezenarro kalean autoak bigarren ilaran aparkatuta egoten dira. Jendeak supermerkatu sartzeko autoa edozein modutan uzten du, eta arratsalde partean batez ere, sekulako arazoak egoten dira bertatik pasatzeko. Arazo hori nolabait konpondu egin behar da”.


TXALOAK


◆ **Herritar talde batek Txankakua Merkatarik Elkartea txalotu nahi du, joan zen larunbatean egindako jaialdiagatik**: “Giro oso polita jarri zuten Plaza Handian Txankakua Merkatarik Elkartekoek. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta oso ondo pasatu genuen”.



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



Yoga: norbere

Remedios Serena

(45 urte) orain dela 12 urte hasi zen Yoga irakasten: “San Bartolome parrokian ematen zituzten Yoga klaseetara hasi nintzen joaten. Bizitzari zentzurik ez niolako aurkitzen hasi nintzen. Bizimodu traketsa neraman, juergarik juerga. Bizitza hori baino gehiago zelakoan nengoen eta beste norabide bat hartu behar nuela uste nuen. Erlazio oso ona egin nuen irakaslearekin, Juan Carlos Porras eibartarrarekin, oraindik ere mantentzen dudana, eta pixkanaka interesatzen hasi nintzen eta baita irakasle izateko ikastaroak egiten ere geroxeago”. Esperientzia izan da bere irakaslerik onena, “nik nire esperientzia irakasten dut eta niri bizitzako esperientzia txarrek irakatsi didate gehien. Yogaren bidez bizitzako arazoak beste ikuspuntu batetatik ikusten dira, norberaren barrutik, Yogaren bidea barruko bidea baita”.




alorrak garrantzi erabakiorra du, ordea, norberak duen intentzioak, alegia. Ariketa fisikoen bitartez lortu nahi diren efektuak norberaren aurretiko joeraz baldintzaturik daude erabat. Intentzioa gainera, amodioan oinarritua egon behar da, gure bihotzetan gorderik dagoen amodioa bilatu ahal izateko. Azaldu eta neurtu ezin daitekeen indar bat daukagu guztiok barnean, amodioaren indarra, bizitza eta bizitzeko indarra ematen diguna.

Jainko-legeen arabera bizi ez denean gizakiak pentsamendu ezkorrak izateko joera izaten du: ezin dut, ez dut gogorik, deprimiturik nago, beldurra dut, bizitza honetako ezerk ez dit interesik pizten, etab. Gisa honetako pentsamendu orok eragina dute gorputzarengan, tentsioa sortzen dute, gaixotasunak, nerbio eta digestio arazoak, estresa eta baita gaixotasun larriagoak ere. Yogako “Asana”k eta “Pranayama”k, hau da, posturak eta arnasketak egin eta lantzen ditugunean gure barnean ditugun energia positiboak pizten ditugu, intentzioa egokia baldin bada, betiere, noski. Hala izanik, gorputzeko tentsioak, nerbio eta digestio arazoak, estresa, etab. desagertzen dira. Gorputza erlaxatu egiten da eta bizitzaren aurrean geneukan jarrera eta ikuspuntua aldatu egiten dira. Gauzak horrela, itxaropenarekin eta fedearrekin ekingo diogu bizitzari, bertan aurki ditzakegun arazoak eta zailtasunak asko izanagatik ere.



YOGAREN ESANAHIA

Yoga hitzaren jatorria Indiako Sanskrito hizkuntza zaharrean dago eta bat-egitea edo batasuna adierazten du. Gure jatorrietara itzultzeko bidea da, betiko etxera. Helburu nagusia Jainkoaren legeei men egitea da, 10 aginduei, alegia. Bestalde, egia ezagutu eta perfekzio gradu altuena lortzeko diziiplina edo bide ezberdinak daude. Hatha Yoga teknika multzo bat da. Diziiplina psikosomatikotzat hartua izan daiteke, bakarra bere generoan eta paregabeko eraginkortasuna duena. Bi elementuk osatzen dute Hatha Yogaren alde fisikoa: “Asana” edo posturak batetik, eta gidatutako arnasketa edo “Pranayama”k bestetik. Adimenaren



esentziarekin bat eginik

Aktore eta pertsonaia ezagunek guztion ahotan jarri dute Yoga azken aldian. Ia denok entzun dugu hitz hau noizbait, baina ba al dakigu zer den? herrian Yoga klaseak ematen dituzten bi irakaslerengana jo dugu. Remedios Serenak eta Idoia Martikorenak Yoga zer den hitzez azaltzea zaila dela aitortu digute, batetik gai zabala delako hitz gutxitan laburtzeko, eta bestetik ulertu ahal izateko praktikatzea omen baita modurik zuzenena eta argiena. Saiakera behintzat egin dugu.

Idoia Martikorenak (43 urte) 16 urte daramatza Yoga klaseak ematen Elgoibarren, baina 18 urte zituela ezagutu zuen. “Garai hartan beldurra ematen zuen Yoga klaseetara gindoazela esateak eta gimnasiara gindoazela esaten genuen. Egun, berriz, modan dago aktore, abeslari eta modelo ezagunek praktikatzen dutelako” aitortzen du. Sanatama Dharma Yoga Elkartearen zituen irakasle izateko ikastaroak.



EZ DA ERLIJO BAT

Yoga erlijio bat ez dela argitzea komeni da, ezta sekta bat ere. Bestalde, egia da, bakoitzak bere burua den modukoa ezagutzeko hasten duen bidean espiritualitatea garatzen duela. Gauzak horrela, bakoitzak bere erlijio propioa egin dezake Yogarekin, norbere barnean baitago. Yogak ez du ezer asmatu, gu guztion barnean berezkoa den egoerara iritsi besterik ez da egiten. Bizi garen moduan, ordea, emozioak pil-pilean dauzkagula, kanpotik barnera begira bizi gara. Yogak alderantzizkoa proposatzen du: barrutik kanpora begira bizitzea, alegia. Emozioak baretuz eta bizitza ikuspuntu lasaiago batetatik begiraturaz. Izan ere, bizitza emozioekin nahasten dugula iruditzen zait. Sentitu ezean ez direla bizi uste du jende askok. Emozioetatik desioa sortzen da eta jendeak sufritu egiten du desio horiek asetzen ez baditu. Denok bilatzen dugu zoriontsu izatea, baina ez dagoen tokian bilatzen dugu batzuetan, hau da, beste pertsonengan, etxe edo auto eder bat edukitzean, lan on bat, e.a. Baina behin lortu ditugunean, zer? beste zerbaiten bila hasten gara orduan. Horregatik jende askok zoriontasuna existitzen dela dio, baina une batetarako zoriontasuna. Jende asko iristen da modu honetan Yogara, izan ere, unea iritsi behar zaizu. Yogak zoriontasuna norbere barruan dagoela proposatzen du, zoriontasunerako bidea da.

Jende gutxi dator kuriositatez egun. Gehienak ondo informatuta eta jakitun datoz. Gainera mediku eta psikologo askok bidaltzen dituzte gaixoak, Yogaren onurak itzelak baitira. Antzietatea eta antzerako emozio arazoak dituztenei gomendatzen diete Yoga.

ZER DA YOGA?

Idoiaren ustez, benetan nor garen ezagutzera garamatzen teknika multzoa da Yoga. Batzuek espiritua deitzen diote, sinestunenean jainkoa, kontzientzia edo energia beste batzuek, baina Yogaren terminologian “izatea” da. Yogaren esentzia norbanakoaren barnean sartu eta benetan garena, jaiotzatik daukaguna eta aldatzen ez den “izate” horren jabe egitea da. Horixe da Yoga: norberaren “izate” edo esentziarekin batasun egoera lortzea.

OKERREKO USTEAK

Jende askok Yoga erlaxatzeko teknika bat denaren okerreko ustea du. Erlaxazioa erabiltzen dugu, baina ez da hori. Arnasa behar bezala hartzen ere ikasten dugu, baina hori ere ez da. Hauek Yoga egoerara iristeko erabili eta praktikatzen ditugun erremintak dira. Alde emozionala, arnasketaren bidez lantzen dugu, “Pranayama” Yogaren hiztegiaren. Arnasketa kontrolpean jarriaz, emozioak lasaitu eta ia desagertaraztea lortzen da. Bake egoera lortzen da eta norbere buruarekin ongizate sentimendua. Gorputz fisikoa, berriz, posturekin lantzen dugu, gorputza askatuz eta muskuluak erlaxatuz. Gorputz fisikoa, emozioak eta adimena gaintitzean, benetan garena aurkitzen dugu gure barnean. Dena dela, inork ez dezala pentsa erraza denik, asko landu eta saiatu beharreko bidea da.



Deba Bailarako Haurrentzako XXX. Perretxiko Lehiaketa izango da domekan, hilak 26, Plaza Handian

15 urtetik beherako perretxikozale guztiek hartu dezakete parte

Karakate Mikologia Elkarteak antolatuta, Deba Bailarako Haurrentzako XXX. Perretxiko Lehiaketa izango da, datorren igandean, hilak 26, Plaza Handian. Azken egunotan egin duen euria dela-eta, perretxiko mota desberdin ugari izango dira ikusgai, iaz aniztasun gutxi izan baitzen udako beroaren eraginez.

Lehiaketa honetan Deba Arroko 15 urtez beherako perretxikozale guztiek hartu dezakete parte, taldeka nahiz bakarka. Partaideek Karakate Mikologi Elkartearen eman beharko dute izena, irailaren 25eko iluntzeko 20:00ak baino lehen. Bestalde, perretxikoak egurrezko edo kartoizko bandejetan aurkeztu beharko dira Foruen Plazan, igandean, goizeko 10:00ak baino lehen. Perretxikoak izenik gabe aurkeztuko dira, A eta B sorta berezietakoak izan ezik. Xaxen



sailkapena eta idazketa ezaugarri morfologiko hauen arabera egingo da: Laminak, tutuak, tolesturak, eztenak, eta beste hainbat forma diferente.

A eta B sorta bereziak

A sorta bereziko perretxikoak jangarria eta bere antzeko pozoitsua nahastu daitezkeelako aukeratu dira. Sorta honetan, Amanita Phalloides (pozoitsua) eta Russula

Heteropylla (jangarria), edo Amanita Muscaria (pozoitsua) eta Amanita Caesarea (jangarria) aurkituko ditugu, besteak beste.

B sorta berezia, ordea, nahasteko arriskurik gabeko perretxikoek osatzen dute: Russula Vesca, Lepista Nuda, Boletus Edulis...

Epaimahaia

Aranzadi Z.E. Elkarteok osatuko dute epaimahaia, eta ondorengo irizpideak izango dituzte kontuan: perretxiko desberdin guztiak puntuatuko dira, sorta berezietakoek puntuazio altuagoa izango dute, Amanita Phalloides (hilgarria) eta Entoloma Sinuatum (eskualde honetako intoxikazioen %80aren eragilea) bilduma onenek trofeo berezia jasoko dute. Azkenik, perretxikoaren hazkunde garai desberdinak azaltzen dituen sorta onenak ere, sari berezia jasoko du.

Gurasoei zuzendutako Euskara Ikastaroak

Udaleko Euskara Batzordeak gurasoei zuzendutako euskarako ikastaro bereziak antolatu ditu herriko euskaltegiekin eta ikastetxeekin elkarlanean. Hiru izango dira herriko gurasoen euskara maila hobetzeko antolatutako ikastaroak: euskalduntzen, hobeto eta errazago hitz egiten ikasteko ikastaroa eta hirugarrena hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko.

Udalaren dirulaguntzari esker, 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek ikastaroaren matrikula erdia ordainduko dute eta kurtsoan zehar asistentzia eta aprobetxamendu ona izanez gero, beka jasotzeko aukera ere izango dute.

Izena emateko: Euskara Sailean (Kultur Etxean) goizez, 943 74 43 66 telefonoan edo euskara@elgoibar.org helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

Jende ugari bildu zen ostegunetako azoka Sigmara eramateko erabakiaren kontrako manifestaldi zaratatsuan

Ostegunetako azoka Sigmara eramateko erabakiak zeresan handia sortu du herrian. Udalak eta azokako merkatariek ez dute akordiorik lortu oraindik, eta joan zen ostegunerako, manifestaldi zaratatsua deitu zuten merkatariek. Herriar ugari bildu zen manifestaldian. Sirena, karraka, zartaginak eta txilibituak hartuta, herriko alde zaharra zeharkatu zuten ahal zuten zarata handiena eginez. 200 lagun inguru bildu ziren manifestaldian. Goizeko 11:00etan hasi zen Plaza Handian, eta partaideek Marivi Agirregomezkor alkatearen presentzia eskatzen zuten oihu artean.

Plaza Handitik Madalaraino joan zen manifestaldia, eta San Frantzisko kalea zeharkatu ostean, Errosario kaletik Plaza Handiraino itzuli ziren.

Manifestaldia bukatu zenean, azokako merkatariek herritarren babesa eskertu zuten txalo artean, eta hauek beraiei eskerrak eman zieten beste txalo zaparrada batekin. Azokako merkatariek azaldu zuten ez, honelako ekitaldiekin protesta egiten jarraituko dute, Udalak hartutako erabakia aldatu arte.



Haur eta gaztetxoentzako Euskara Errefortzuak urriaren 4an hasiko dira

Datorren urriaren 4an hasiko dira Elgoibarko Izarrak Udalarekin elkarlanean antolatutako Euskara Errefortzuak. Egitasmo honen bidez, Elgoibarren euskaraz ez dakiten edota euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haur eta gaztetxoei eskola orduez kanpo laguntza eskainiko zaie, haur eta gaztetxo hauek euskaraz hitz egiteko erraztasuna lortzeko eta euskara ikasteko apropos prestaturiko metodologiarekin: jolasak, eskulanak, abestiak...

Egitasmo honen barnean bi atal bereiztuko dira: alde batetik, euskara ez dakiten haur eta gaztetxoei zuzendutako saioak, eta bestetik, euskaraz hitz egitekorakoan zailtasunak dituztenei zuzendutakoak.



Interesatuak ikastetxean bertan eman dezakete izena, eta informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera deitu daiteke (943 74 16 26, Nerea Larrañaga).

Tianjineko 8 zuzendari txinatarrek bukatu dute IMHk eskainitako formazioa

Joan zen asteazkenean, irailaren 22an, Tianjin hiriko CSMC Institutu Teknikoko 8 zuzendarik IMHn egindako lan-egitaraua bukatu zuten. Proiektu honen helburua, Tianjin Ikastetxe Teknikoa handitzea, egokitzea eta Prestakuntza Iraunkorreko saila martxan jartzea da. Bi astetan zehar, Euskal Herrira ekarri dituen proiektuan diseinatu zenaren arabera, beraien profilari egokitutako mintegietan parte hartu dute. Hezkuntzaren kalitate eta diseinua, estrategia, heziketa iraunkorra eta gaitasunak kudeatzeko teknikak landu dituzte gehienbat. Beraien prestakuntza osatzeko eta gure giza-



industriaren errealitatea hobeto ezagutzeko, makina erreminta fabrikatzaileak eta euskal erakunde ofizialak bisitatu dituzte. Tianjineko zuzendariekin batera, Txinako enpresetako ordezkariak ere hartu dute parte bisita hauetan.

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko lau txeke banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Dioni Larrea, Marci Checa, Mari Carmen Osoro eta Jose Benito Aranberri izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, Ibai Ondo jatetxerako bi pertsonentzako bi afari zozketatuko dira.



25 aldiz odola eman dutenek intsignia jasoko dute

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarateak gipuzkoarren solidaritatea eskertuko du urriaren 17an, Donostiako Belodromoan. Ekitaldi honetan, 25 aldiz odola eman duten 12 elgoibartarrek jasoko dute intsignia: Maria Del Pui Bilbatua, Maria Teresa Casado, Margarita Gurrutxaga, Itziar Alberdi, Elena Arregi, Rosa Maria Aldazabal, Valentín Barrenetxea, Juan Mari Eguren, Antonio Garrido, Esteban Gonzalez, Iñaki Guede eta Ignacio Izagirre.

Anoetako Belodromoan izango da bazkaria, eta ondoren Egan taldearekin dantzaldia. Parte hartu nahi dutenek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta lehenbailehen konfirmatu beharko dute beraien partehartzea, ondorengo telefonoetan: 943 74 32 57/943 74 05 51/943 74 03 02

IMHk Graduondoko Mekanizazio Ikasketen 3. edizioa jarriko du martxan

Hirugarren urtez, IMHk Graduondoko Mekanizazio Ikasketak jarri ditu martxan. Ikastaro praktikoa hau Ingeniaritzako Goi Mailako edo Ingeniaritza teknikoko ikasketak amaitu eta makinatan trebatu nahi dutenei zuzendua dago. Urriaren 4tik azaroaren 9ra arte, astelehenetik ostiralera goizez emango da IMHko lantegian. Matrikularen prezioa 950 eurokoa da. Informazio gehiago 943748270 telefonoan (Nora Ramon) edo www.imh.es web gunean.

Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatarik Elkarateak Nazioarteko Folklore jaialdian egindako zozketa ren irabazleak Maria Ines Arriola, Maria Pilar Arrizabalaga eta Josune Larreina izan dira. Bakoitzak 60 euroko saria jaso du. Zorionak!

Itziar Irureta elgoibartarrak ETBko Basetxea programan parte hartzen dihardu JOANGO AL ZINATEKE TELEBISTAKO HORRELAKO PROGRAMA BATERA?



JULIAN CONDE
64 urte, jubilatua

Ez, programa horietara jendea denbora pasatzera bakarrik joaten da, ez lehiatzera. Ez zait programa horien sistema gustatzen. Emazteari gustatzen zaizkionez, nik ere ikusten ditut, baina ez ditut gustuko.

JOSEBA QUINTAS
15 urte, ikaslea

Bai, famatua egin eta dirua erraz irabazteko modu bat da. Denak joaten dira dirua irabazteko. Famatuek presio handia jasaten dute, baina berdin zait. "Gran Hermanora" joango nintzateke gustura.



MARI KARMEN ARIZAGA
60 urte, etxekoandrea

Parte hartzera ez nintzateke joango, baina programa horiek ikustea gustatzen zait. Baserri mundukoa naizenez, Basetxea gehiago gustatzen zait, baina besteak ere noizbehinka ikusten ditut.

CARMEN ALAMINO
44 urte, etxekoandrea

Bai, izugarri gustatuko litzaidake, famatua egin, eta dirua irabazteko. Sekulako esperientzia izango litzateke. "Gran Hermano"ko kastingera deitzea pentsatu nuen, baina hainbeste jende egoten denez, ez nuen deitu.



JOSE INAXIO URRUTIA
24 urte, abeltzaina

Basetxean hartuko nuke parte, baina "Gran Hermano" bezalakoetan ez, hor ez dute ezer egiten. Etxean anaiari ere gustatzen zaio Basetxea, eta denok ikusten dugu.

LEIRE EGAÑA
17 urte, ikaslea

Ez, kamaren aurrean nire bizitza erakusteko sekulako lotsa ematen dit. Kamararik gabe, joango nintzateke, lagunak egin eta esperientzia berri bat ezagutzeko. Ikusteko, denak gustatzen zaizkit.



IMAR ERREFORMAK

- Barruko atek eta blindatuak
- Tarima eta parket flotatzaileak
- Armairu landatuak
- Sukalde eta etxetresna elektrikoak

Eskata aurrekontuak konpromisorik gabe!

Tel.-Faxa: 943 53 14 71 Mobilak: 609 054 978
EIBAR 646 905 564

nipes umeentzako jantziak

Punta puntako markak

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

**DKNY
KENZO
TIMBERLAND
ELLE
IKKS
NOLITA**

HAURREK ESKOLAN GAIXOTASUNIK EZ HARTZEKO AHOLKUAK

Ikasturtea hastearekin batera, haurrek infekziozko gaixotasun ugari hartzen dituzte eskolan. Jende asko biltzen den toki guztietan gertatzen den bezala, eskoletan ere birus eta bakterio ugari pilatzen dira. Haur bat gaixotzen denean, oso erraza da gainontzekoek ere gaixotasun hori harrapatzea, baina badaude kontagio hauek saihesteko aukerak. Hiru aholku nagusi kontuan izanik, kontagio ugari ebitatu daitezke.

1. Eskuak ondo garbitu:

Pediatrek esaten dutenez, eskuak garbitzea bezalako ekintza simple batek kontagio mordo ebitatzen ditu. Seme-alabei eskola-tik etxerakoan, bazkaldu aurretik, komunera joan ostean, animaliekin ibilitakoan... eskuak garbitu behar direla erakutsi behar zaie. Esku guztia igurtzi behar da ura eta xaboiarekin, eta gero ondo akklaratu.

2. Antibiotikoek ez dituzte infekzio birikoak sendatzen:

Bakteriek sortutako infekzio konkretu batzuk sendatzeko baka-rik balio dute antibiotikoek. Gripa edo ezturen sintomak ager-zen direnean, infekzio birikoak izaten dira normalean, eta horien kontra antibiotikoek ez dute balio.

3. Sukarra jaisteko ez zaie haurrei aspirinarik eman behar:

Infekzio birikoren bat agertzen denean, haurrei ez zaie aspi-rinarik eman behar sukarra jaisteko. Gaixotasuna hobetu beharrean kalte egin dezake, eta infekzio hori Reye Sindromea izeneko gai-xotasun hilgarri batean bihurtu daiteke.



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENe 943 74 41 12ra

osasuna

Osasun txokuak

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: **635 71 55 03**

Egunero: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazken: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegun: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

Jende asko bildu zen Txankakua Merkatari Elkartearen IV. Ferian

Laugarren urtez jarraian, Txankakua Merkatari Elkarteko ki-deak kalera atera ziren, joan zen larunbatean, hilaren 18an. Goizeko 11:00etatik aurrera, merkatari bakoitza bere postuan zegoen, herritarrek hurbiltzeko zain. Poliki-poliki, jendea gerturatzeko hasi zen, eta azkenean herritar ugari bildu zen Plaza Handian.

Txankakua Merkatari Elkartekoak oso pozik daude elgoi-bartarren erantzunarekin: "Gure helburua giro ona sortzea zen, eta lortu genuela uste dugu; etxeko txikienek oso ondo pasatu zuten gaztelu puzgarriekin, txu-txu trenean eta Gorritiren animaliekin, eta VISA txartelak ere harrera oso ona izan zuten. IV. Ferian parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu".

Txu-txu tren

Herriko kaleak zeharkatu zituen txu-txu trenak. Haurrak beren gurasoekin batera, begira zeuden herritar guztiei agur eginez txu-txu trenean ibiltzeko aukera izan zuten.



Gorriti eta bere animaliak

Gorritik ikuskizun bikaina eskaini zuen bere animaliekin. Jende ugari bildu zen bertan, eta izugarri gozatu zuten. Oilarrak kantuan ikusiz eta zezentxoekin jolasean gustura ibili ziren ikusleak.

Jende asko ibili zen salmenta postuetan

Mota guztietako merkatariak atera ziren Plazara beraien produktuak erakustera. Jende asko ibili zen produktuak ikusi eta erosten, eta giro bikaina egon zen.



300 euro saritan

Eguerdiko 13:30ean 300 euro zozketatu zituzten. 60 euroko bost txeke banatu zituzten, Txankakua Merkatari Elkarteko dendetan gastatzeko. Argazkian ikusten ditugu irabazleak, Maria Eugenia Gonzalez Txankakuako presidentearekin eta panpinekin batera. Zorionak guztioi!

Eskuratu ezazu



TXANKAKUA txartela

Hauek dira
TXANKAKUA Txartelak
emango dizkizun
abantailetako batzuk

Zure erosketa hiru hileko epean ordaindu,
interesik gabe.

Txartel honekin era erosoan ordaindu ahal izango duzu, hiru hileko epean ere, gainkosturik gabe, eta nahi baduzu epe gehiagotan lehentasunezko interesez.

Erabat dohainik da.

Txartel hau erabat dahainik eskuratu ahal izando duzu, Elgoibarko Merkatarien elkartean sarturik dauden saltokietan, edo Nafarroako Rural Kutxaren bulegoan.

Zuk hautaturiko bankuan helbideratua.

Are errazagoa izan dakizun, TXANKAKUA Txartelaren ordainketak helbideratuko dizkizugu, zuk nahi duzun entitatean bankua aldatu beharrik gabe.

Laguntzailea:



CAJA RURAL
DE NAVARRA



GARATE

Jantzi - Denda

San Bartolome, 13
Tel.: 943 74 11 29
ELGOIBAR

Erribera, 3
Tel.: 943 86 09 96
ZUMAIA



GO2



skunkfunk

San Frantzisko, 13 • Tel.: 943 74 46 66



Ferpi Modak

Emakumeentzako
moda



San Bartolome, 38

Tel.: 943 74 08 15

CASA ASTIGARRAGA GYS SPORT

OUT LESS

- Umeen zapatilak **20€**
- Txandalak **30€**
- Polarrak **30€**
- Parkak **30€**
- Kamisetak **10€**
- Mendiko botak **30€**



ESKOLARA BUELTA!

Jausoro Plaza
Tel.: 943 74 43 86

CASA ASTIGARRAGA



GYS SPORT

Errosario, 16-18
Tel.: 943 74 32 68





CASA ASTIGARRAGA



GYS SPORT

Neguko jantzietan azkena!



PACO HERRERO -
CLARKS -
HISPANITAS -
PANAMA JACK -

ZAPATADENDA

Z A P A T A D E N D A

San Frantzisko, 34 - Tel. 943 740 235

- PIKOLINOS
- CAMPER
- NATURE
- HOMERS



karkizano

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 74 05 49



Luvik

oinetakoak

San Bartolome, 28 ■ Tel.: 943 74 43 45



24 HRS

STUDIOPALOMA

Piedeli
1913

ANGEL INFANTES

AEROSOLES

Dansi



JULENE

San Frantzisko, 43
Tel.: 943 74 42 53



Ume eta
gazteentzako
jantxidenda

gofi

Giza Eskubideen plaza, 1 • Tel.: 943 74 46 53



IRIONDO

KIROLAK

Marka onenak!

San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56

Mendi eta kalerako moda

EIZAGUIRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"



San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88



Kamara digitalak eta analogikoak

Zure argazki
analogiko edo digitalak,
editatu eta
sonorizatuak
DVDra
pasatzen ditugu.

Ordubeteko errebelatua

ostarku
ARGAZKIAK

Santa Ana kalea, 5
943740658 - ostarku@comadoo.es



URDAITEGIA · JANARIDENDA
DORI



- Produktu iberikoak
- Hestebeteak
- Urdaiazpikoak
- Kontserbak
- Gaztak / Pateak



Errosario kalea, 29 · Tel.: 943 74 11 92

azkue

ARGAZKIAK

CÁMARA DIGITAL
FinePix

FUJIFILM

Kodak Fotos



San Bartolome, 29 • Tel.: 943 74 08 48

13x18 eta 10x15eko argazkiak pelikulatik zein digitaletik



SKANDALO

San Bartolome, 9 • Tel.: 943 74 35 95

Sara



GOIARA



Lurrindenda

San Bartolome, 23
Tel.: 943 74 11 33



ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa ▪ Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa ▪ Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



ZELETA BASERRIA
San Migel auzoa ELGOIBAR
Tef.: 609 35 76 19



Garbiñe estetika
edertasunarekin
topatzeko lekua

**Guk irudi aldaketa egin dugu, zuk zergatik ez?
Udararen ondorioak hobetzeko zatoz guregana.**

AURPEGIKO TRATAMENDUAK
GORPUTZEKO TRATAMENDUAK
DEPILAZIOAK
SOLARIUMA



Olio esentzial eta landareen
kontzentratuekin eginiko
%100 tratamendu naturalak



P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32



San Bartolome, 35
Tel.: 943 74 03 45



San Frantzisko, 17 • Tel.: 943 74 05 33



San Frantzisko, 23
Tel.: 943 74 27 58

Pilarreko zubirako eskaintzak urriaren 8tik 12ra

Lisboa **399** €tik hasita

Budapest **529** €tik hasita

Viena **629** €tik hasita

Viajes Bilbao Express

Bilbao Express Bidaiak

Foruen Enparantza, 3

TEL.: 943 74 39 12 - FAXA: 943 74 44 24

E-MAILA: e1@viajesbilbaoexpress.com

www.viajesbilbaoexpress.com



Triundo Triundo Triundo Triundo

Santa Ana 4 eta 6

Tel.: 943 74 12 34



Kala

loradenda



San Frantzisko, 24

Tel.: 943 74 45 16

GORRANO

dekorazioa

San Bartolome, 21
Tel.: 943 74 01 91



San Bartolome, 10
Tel.: 943 74 37 34
ELGOIBAR

Dior

Ikus Optika

Jose Arletxe, 10
Tel.: 943 15 75 74
AZPEITIA

BONARDI "AIRE"
montura orain
60 €

BONARDI
montura orain
35 €

MULTIOPTICAS
UZURI

Lente
PROGRESIBOAK
orain
130€tik hasita

MIS LUPOS
lente gogortutako
betaurrekoak
58 €

San Frantzisko, 21 ELGOIBAR · Tel.: 943 74 03 59

Ostolaza, 7 DEBA · Tel.: 943 19 21 92



Pintxoak • Bokadiloak • Gosariak • Postreak

PLATER KONBINATUetan aukera zabala

Pedro Muguruza, 5
Tel. 943 74 08 06

GOROSTIZA

liburudenda

Jostailuak
Eskolako materiala
Opariak
Fotokopiak



Errosario kalea, 16 • Tel.: 943 74 03 88

LA BODEGA

ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK
Olagarroa - Haragi errea - Kazuelatxoak


EGUNEKO MENUAK
ematen ditugu



Pedro Muguruza, 22 • Tel. 943 742 500

Softlan-en azkena ezagutzen al duzu?

www.esoftlan.com



- ➔ 13.000 produktuen datuak on-line kontsultatu
- ➔ Zuzenean erosi prezio merkeagoak lortuz
- ➔ Zure fakturak eta bidalketak berrikusi
- ➔ Zure kontuko informazio guztia kontsultatu

Honetaz aparte...

Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05 • Faxa: 943 74 82 28
E-posta: info@softlan.biz
Web orria: <http://www.softlan.biz>



Softlan
analisa & programazioa

"Portugaleko Itsasoak" Luis Vioqueren argazki erakusketa

22 argazkiz osatutako erakusketa urriaren 1etik 16ra egongo da ikusgai

Amaitu berri den Eduardo Arrillaga elgoibartarraren erakusketak lagatako aho-zapore ona eta ikusle arrakasta oraindik gogoan dituztela, Luis Vioque argazkilari madrildarraren "Portugaleko Itsasoak" erakusketa da Ongarri Argazkilari Elkarteak elgoibartarrei egin nahi dieten hurrengo proposamena. Argazkilari ibiltaria dugu Luis Vioque eta lan honetan Atlantikoko itsas bazterrak arakatu ditu, jenderik iristen ez den lekuetatik mugituz. Argazki guztietan ageri dira egilearen sentimenduak modurik sinple eta primitiboenean. 2001. urtean hasi zuen lan hau Oportoko itsasertzean eta hegoalderantz jarraitu zuen bidea.



Zanbujeira do mar herriko ondartza zoragarria.

Bigarren bidaia 2003ko ekainean egin zuen, Tuytik Ayamontera (Huelva). Portugal eta Atlantikoaren artean dagoen harremana bere kamararekin izoztea lortu du. Argazkiak zuri beltzean eginak daude eta erakusketa 10 argazki panoramiko

(120x55 zentimetrokoak) eta beste 12 tamaina erdiko argazkiz osatua dago. Urriaren 1ean inauguratuko da erakusketa 20:00etan Kultur Etxean eta urriaren 16ra arte izango da ikusgai 19:00etatik 21:00etara bitartean.

Aiastia auzoko jaiak gaurtik hasi eta hilaren 29ra bitartean



Aiastia (San Migel) auzoak, bere santuaren omenezko jaiak ospatuko ditu gaur (hilak 24) hasi eta San Migel Eguna (irailak 29) bitartean. Gazteen Eguna inauguratuko ditu jaiak gaur, hilak 24. Poteoa bizikletan, gazte afaria, disko festa eta goizaldera izango den "striptease" izango dira eguneko ekintzak. Bihar, berriz, Euskal Herriko Arraza Libreko Artzai Txakur Txapelketa izango da ekitaldi nagusia. 17:00etatik aurrera Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako artzai eta txakurrik onenak lanean ikusi ahal izango dira. Iazko irabazleak, Jose Ramon Orbeago

Arantzazuko fraidea eta "Alai" txakurra ere bertan izango dira. Gauean Haritz Euskal Dantzari Taldearen ohiko erakustaldia izango da eta Luhartz taldearekin erromeria ondoren. Domekan idi demen txanda izango da. Bertan, Garro (Etxebarria), Lopategi (Billela) eta Erlete (Arrua) izango dira parte hartzaileak. Irabazleak 750 euro eta garaikurra poltsikoratuko ditu. Azkenik, San Migel Egunean, hilaren 29an, auzoko bikoteen arteko XIX. Pilota Txapelketaren finala jokatu da eta iluntzean auzotarren afaria egingo dute. Gardokiren erromeriarekin esango diote agur aurtengo jaiak.

Kokoeren Komiki Lehiaketan lanak aurkezteko epea urriaren 11n amaituko da

Elgoibarko Kokoer Komiki Elkarteak bi urtean behin antolatzen zuen Komiki Lehiaketa orain artean, baina hemendik aurrera urtero antolatzea erabaki dute. Gauzak horrela, lehiaketaren 9. edizioan parte hartu nahi izanez gero, lan originalak aurkezteko azken eguna urriaren 11a izango da. Elgoibarko Kultura Zerbitzuan (Nafarroa plaza, 3) entrega daitezke lanak. Oinarriak Kokoeren web-orrialde berrian

daude ikusgai: www.kokoe.org. Urriaren 22an inauguratuko da lehiaketan parte hartu duten lanekin osatutako komiki erakusketa eta sari banaketa ere bertan egingo da. Urriaren 31ra arte egongo dira ikusgai komiki lanak Kultur Etxean. 2003ko lehiaketako irabazlea Valladolideko Jesus Maria Aguado izan zen eta bigarren sariaartzelona aldera joan zen, Jose Maria Delgadoren eskuetara, hain zuzen ere.



¿MERECE LA PENA APRENDER EUSKERA?

LOLI FREIRE

"Yo creo que sí.
Mi marido y mi hija
saben euskera,
y a mi también me
gustaría poder hablar,
en casa y en la calle.
Lo voy a intentar".



ROBERTO RODRIGUEZ

"Sin duda. Hay mil
razones para que nos
animemos a aprender
euskera. En mi caso,
creo que un médico
debe de saber euskera
si quiere trabajar en el
País Vasco. Los pacien-
tes euskaldunes tienen
todo el derecho".



ALINA SANCHEZ

"¡Claro que sí!
Yo soy cubana,
se que me va a
costar mucho,
pero voy a hacer
un esfuerzo.
Mi objetivo es
poder hablar en
euskera con mi hijo".



ALBERTO DEL HOYO

"Ni euskaldun zaharra
naiz, baina nire
euskara sakontzeko
eta aberasteko
beharra ikusi nuen.
Horregatik animatu
nintzen EGA
ateratzera.
Zergatik ez zara zu
ere animatzen?".



**SI TU TAMBIEN CREES QUE MERECE LA PENA,
TE ESPERAMOS EN:**



AEK EUSKALTEGIA

Plaza txikia, 3
Tel. 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net



UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa plaza, 2
Tel. 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea



UDAL
EUSKARA BATZORDEA

AZAROTIK EKAINERA, EUSKARAZ HITZ EGITEKO

TERTULIAK

Euskara ikasten ari bazara (4. urratsetik gora) edo euskaraz hitz egiteko erraztasuna lortu nahi baduzu, eman izena TERTULIAK egitasmoan parte hartzeko. Euskaldun zahar batekin euskaraz hitz egiteko aukera izango duzu, astean ordubetez.

Izena emateko joan euskaltegietara edo Elgoibarko Izarrara *urriaren 15a baino lehen.*

Entrenatzailea eta sei jokalarri berrirekin ekin dio Haundik 3. mailari

Zapatuan jokatuko dute lehen partida Mintxetako belar artifizialeko zelai berrian

Azken urteetan amestutako igoera modu bikainean lortu ostean, 3. mailan jokatu eta mantentzeko gai dela frogatu beharko du Haundik aurrean. Erronkari aurre egiteko talde eraberritua osatu dute. Lehen aldaketa nabarmena entrenatzailearen eserlekuan aurki dezakegu, Asier Olaizola getariarrak hartu baitu Fran Garagarza mutrikuarrak lagatako lekua. Olaizolak ongi ezagutzen du Haundia, duela 3 denboraldi bigarren entrenatzailea izan baitzen. Bost urte daramatza entrenatzaile gisa eta iaz Ohorezko Mailako Zarautzeko jubenilak entrenatu zituen. Getariarrak 20 laguneko taldea osatu du, iaz baino 4 gutxiago, zuzendaritzak 20 jokalariko kirol-plantila nahikoa dela erabaki baitu. Sei jokalarri berri iritsi dira taldera eta 10 lagunek laga dute berau. Taldeko sei jokalarik ezagutzen dute 3. mailan jokatzeko zer den, baina gainontzekoek ilusio itzela dutela aitortu digu Olaizolak. Ligako lau partida jokatu dituzte jadanik. “Lehena Portugalete liderrarekin galdu genuen 0 eta 1 azken minututan Unben. Bigarrena Eibarren aurka berdindu genuen Ipuruan. Hirugarrena irabazi egin genuen Aurrera de Vitoriaren




Haundiko jokalarri, entrenatzaile eta presidentea.

aurka Unben eta azkenengoa, hutsna berdindu genuen San Pedroren aurka”. Futbol zelaiaren berdegunea aldatzeko lanak direla-eta, Unben entrenatu eta jokatu dituzte etxeko partidak. Unben jokatu dituzten partidetan zaletu gehiagoren babesa falta izan zaiela aipatu digu Olaizolak. Zapatu honetan, hilaren 25ean, jokatu dute lehen partidua Mintxetako futbol zelai berrian. Hain zuzen ere, partida (16:30) hasi aurretik inauguratuko da belar artifizialeko joko zelai berria. Zelai

berrira ohitu beharko dutela azaldu digu entrenatzaileak, “areroentzat bezain arrotza izango da guretzat. Jokalariek lehengoa baino hobeto dagoela diote. Gogorragoa zen lehengoa eta baloia arinago ibiltzen zen. Fisikoki ongi egon beharra zegoen, baina orain baloia polikiago joaten da. Honez gain, kautxoak ematen dion biguntasunari esker lesio gutxiago izateko arriskua dago. Lehen muskulu abduktoreetako lesio asko izaten zituzten futbolariak. Alde onak eta txarrak dauzka, baina ohitzea da gakoa”.

FITXAKETA BERRIAK




Fernando Loiola
2. ENTRENATZAILEA
Elgoibar




Asier Olaizola
ENTRENATZAILEA
(32 URTE) Getaria




Oier Iribar
ERDILARIA (23 urte)
Getaria



Kerman Azkarraga
ATZELARIA (24 URTE)
Arrasate




Mikel Calvo
ATEZAINA (20 URTE)
Soraluze



Iñigo Oruesagasti
ATZELARIA (27 urte)
Azkoitia



Andoni Agues
ERDILARIA (24 URTE)
Zarautz



Mikel Etxabe
AURRELARIA (22 URTE)
Elgoibar

Castañares anaiak jaun eta jabe Zizurkilgo zaldi lasterketan



Iosu eta Igor Castañares anaiak nagusitu ziren Zizurkilgo zaldi lasterketan joan zen domekan, hilaren 19an. Bi anaiak eskua emanda sartu ziren helmugan hirugarren sailkatuari dezenteko aldea ateratzen ziotela jabetu ostean. Gipuzkoako hainbat herritatik joandako 17 zaldik eta zaldizkok parte hartu zuten proban eta ehunka ikusleren aurrean neurtu zituzten indarrak. Finala hasi bezain laster izugarriko euritea

hasi zuela izan zen lasterketako jazoerarik aipagarriena. Euriak ez zituen Castañares anaiak kikildu, ordea, eta aise nagusitu zitzaizkien arerioei. San Bartolome jaietako Lehen Zaldi Lasterketan ere Iosu izan zen irabazlea. Igor anaiarekin lehia bizia izan zuen azken unera arte, baina bertaratutakoak beldurtu zituen eroriko gogorra izan zuen Igorrek eta ezin izan zuen lasterketa amaitu.

Igor Elizburuk erlojuz kontrako "Handbike" proba irabazi zuen Andoainen

Joan zen zapatuan, hilaren 18an, egokitutako bizikletentzako Gipuzkoako I. Criterium-a ospatu zen Andoainen. Andoingo Batzoki Elkarteak antolatu zuen probaren helburu nagusia, egokitutako txirrindularitza ezagutzera ematea zen eta bide batez, minusbaliatu fisikoentzako kirolaren alde lan egiten duten elkarten berri ematea, besteak beste, Kemen Dordoka, Saiatu, Once edo Minusbaliatuentzako Gipuzkoako Federazioa. Lehiaketa baino gehiago, lagun

arteko bilkura izan zen eta ia 50 kirolari inguratu ziren Andoainera. Igor Elizburu elgoibartarrak Handbike (esku bizikleta) modalitatean parte hartu zuen eta berea izan zen denborarik onena erlojuz kontrako proban. Igorrek 4 kilometroko ibilbidean parte hartu zuen. Duela hiru hilabete eskas hasi da modalitate hau praktikatzen, baina badirudi azkar hartu diola neurria. Taldekako saio edo erakustaldi batean ere parte hartu zuen elgoibartarrak eta bere taldea bigarren postuan sailkatu zen.



Zapatu honetan jokatuko da Ehiza Xehe Txapelketa Urnabitza mendian



La Union Ehiza eta Arrantzu Elkarteak Ehiza Xeheko Txapelketa antolatu du. Zapatuan, hilak 25, jokatuko da txapelketa Urnabitza mendian. Elgoibarko nahiz kanpoko ehiztariek parte hartuko dute. Egunean bertan ere izena eman ahal izango da. Parte hartzaileek laguntzaile bat eraman beharko dute epaile lanak egin ditzan beste ehiztari batekin. Txapelketa egunean goizeko 7:30ean egingo da epaileen zozketa

La Union Elkartean. Ehiza ordua, berriz, 9:00etatik 13:00etara luzatuko da. Lehen hiru sailkatuek Eskualdeko txapelketan parte hartzeko eskubidea eskuratuko dute. Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketa urriaren 2an, zapatuan, ospatuko da Urnabitza. Bertan, Eibar, Mendaro eta Elgoibarko ehiztaririk onenak arituko dira eta hauei iazko txapelduna gehituko zaie, hau da, Txomin Rogel elgoibartarra.

EMAITZAK

Futbola

San Pedro 0 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 0 – Pedrusko 0 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – San Marcial 0 (Jub.)
Antoniano 1 – Elgoibar 6 (Kad.)
Elgoibar 3 – Ordizia 4 (Infantil A)
Zumaia 6 – Elgoibar 0 (Neskak)
Elgoibar 4 – Almen 3 (Neskak F-8)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 18 – Añorga 22 (Kad.)
San Esteban 7 – Lagunak 22 (Jub.)
Lagunak 18 – zazpi Iturri 22 (Nag.)
Anaitasuna 22 – Lagunak 9 (Jub.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 25

11:00 Elgoibar – Amara Berri (Neskak)

16:30 Haundi – Audio (3. maila)

Domekia, 26

10:15 Elgoibar – Ermua (Infantil A)

12:00 Elgoibar – Amaiak Bat (Kad.)



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Azkoitiko enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004007226**

Elgoibarko enpresak **proiektu zuzendaria** behar du. **Erref. 162004007346**

Arrasateko enpresak **bidai agentea** behar du. **Erref. 162004007414**

Arrasateko enpresak **bi elektrikari** behar ditu. **Erref. 162004007677**

Arrasateko enpresak **arkitekto teknikoa** behar du. **Erref. 162004007853**

Zumaiako enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162004007588**

Bergarako enpresak **biltegirako arduraduna** behar du. **Erref. 162004007739**

Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004007820**

Arrasateko enpresak **frantses irakaslea** behar du. **Erref. 162004007812**

Bergarako enpresak **tornurako langilea** behar du. **Erref. 162004007858**

Zumaiako enpresak **harrerarako langilea** behar du. **Erref. 162004007802**

Mendaroko enpresak **pintorea** behar du. **Erref. 162004007744**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. **☎ 645 73 51 16**

♦ Sistema Informatikoen Administrazioa ikasi duen pertsona lanerako prest. **☎ 680 23 76 31**

♦ Hautzaindegian esperientzia duen mutila haurrak zaintzeko prest. **☎ 943 03 36 92**

♦ Emakumea goizez edozein lan egiteko prest. Euskalduna, kotxea daukat. **☎ 690 798 545 (Iruñe)**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. **☎ 626 91 49 04**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. **☎ 699 60 91 90**

♦ Emakumea nagusi edo haurrak zaintzeko prest. **☎ 610 69 95 32**

♦ Administrataria eskaintzen da. Ez dago kontratu beharrik. **☎ 627 831 529**

♦ Pertsona arduratsua egun erdiz lan egiteko prest. **☎ 678 070 546**

♦ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. Goizeko 10:30etik 17:30era eta asteburuetan. **☎ 699 60 91 90**

Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. **☎ 943 75 24 31/600 89 06 41**

ESKAINITZA

♦ Kamareroa behar da asteburuetan taberna-jatetxerako. **☎ 635 75 16 42**

♦ Txofer banatzailea behar da 15 egunetako lan kontratuarekin. Urriaren 11tik 25era. **☎ 649 97 10 53**

♦ Jantoki eta barrarako kamareroa behar da. **☎ 943 76 48 63**

♦ Soraltzeko Pil pilean aldizkariak kazetaria behar du egun erdirako. Kurrikulumak bidali: Pil Pilean Euskara Elkarte, 27 postakutxa, 20590 edo pilpilean@euskalnet.net **☎ 943 75 13 04**

♦ Ille apaindegirako langilea behar da, aldi baterako. Pelukeria ezagutzen duena. **☎ 615 70 57 72/615 70 33 97**

♦ Elgoibarko jatetxeak sukaldaria eta kamareroak behar ditu. **☎ 943 74 12 30**

♦ Kamareroa behar da. **☎ 943 74 10 12**

♦ Kamareroa behar da. **☎ 943 030 150**

♦ Mutila behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. **☎ 670 65 49 21**

♦ Asteburuetarako sukaldaria behar da. **☎ 670 25 04 29**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

♦ Etxea salgai Arregitorren. 3 logela, egongela, bi komun eta sukaldea. Eguzkitsua. Berritua. **☎ 679 830 438**

♦ Benidorm-en apartamentua alokatzen da. **☎ 943 74 06 28**

♦ Etxea salgai. 3 logela, altzariekin, zaharberritua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. **☎ 661 42 60 77**

♦ Pisu ekonomikoa hartuko genuke alokairuan Elgoibarren. **☎ 699 60 91 90**

♦ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora begira. Prezioa adosteko. Aukera paregabekoa. **☎ 625 26 09 39/943 75 62 05**

♦ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Berogailu zentrala. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 699 179 872/943 74 02 68**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**

♦ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. **☎ 627 603 437**

♦ Etxea osatzeko pertsona bat behar da. **☎ 615 76 72 44**

♦ Pisu salgai Eibarren. Karmen kalean, igogailuarekin. **☎ 615 71 99 01 (Angelita)**

♦ Pisu salgai Mendaron. Berria. Garaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. **☎ 696 305 317/943 74 15 21**

♦ Pisu salgai Mendaron. Berria. Altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia. **☎ 609 96 53 95/650 12 96 05**

♦ Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trasteroa. Aukeran garajea trastero handiarekin. **☎ 943 74 41 85**

♦ Pisu salgai. Bi logela. Altzariekin. 75m² erabilgarriak. **☎ 678 627 397**

♦ Logela bat alokatzen da Sigman. **☎ 659 62 73 56**

♦ Logela bat alokatzen da. **☎ 943 74 18 81**

Salerosketak

♦ Bi bizikleta salgai: Trialeko Monti 219XMagura eta GT-02 De Free Estil. Prezioa adosteko. **☎ 680 74 40 53**

♦ Ibilitzeko zinta elektrikoa salgai. Nahiko berria. **☎ 943 74 14 94**

♦ Tokadorea salgai. Egurrezko bi kajoirekin. Fresno egurrezkoa. Egoera onean. **☎ 943 74 14 94**

♦ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. Egoera onean. **☎ 943 74 11 30**

♦ Mercedes 190 25D salgai. Aire egoikita. Egoera onean. Merkea. 175.000km. **☎ 690 03 57 50**

♦ Errepiderako bizikleta salgai. Cannondale ALU 2.8 . 48-50 neurrikoa. Egoera onean. **☎ 943 19 25 71 (Moises)**

♦ Motorra salgai. Special 250. Margaotua berria. 4 urte. 1.700 euro. **☎ 665 70 13 70 (Eli)**

Partikularrak

♦ Portuges klase partikularrak hartuko nituzke hizkuntza trukaketa egingo nuke. **☎ 635 20 37 18**

♦ Ingelesko klase partikularrak ematen dira, goizez eta arratsaldez. 13 urteko esperientzia. Maila guztiak. **☎ 653 72 28 11/943 74 31 67**

Garajeak

♦ Garaje plaza komunitarioa alokatzen da San Roken, Aterpe inguruan. **☎ 653 73 94 67/943 74 31 90**

♦ Garajea alokatzen da Ikastola ondanoan. **☎ 943 53 16 48**

♦ Urasandin 27m²ko garaje itxia salgai. **☎ 659 14 12 32**

♦ Madalako etxe berrien azpian garajea eta trasteroa alokatzen dira. **☎ 605 77 34 53 (21:00etatik aurrera)**

Bestelakoak

♦ Urrezko belarritako galdu nuen Santa Ana kaletik Plaza Handira bitartean. Koloretako hiru harri ditu: gorria, berdea eta urdina. **☎ 659 94 03 58**

♦ Urrezko domina topatu dut, liñaki ize-na daramana. **☎ 656 72 47 82**

Lokalak

♦ Lokala alokatzen da San Bartolome kalean. Ez du obra beharrik. **☎ 667 94 24 33 (gauetz)**

Agurrak

♦ Zorionak **Adur Agirre**ri, hilaren 20an, 4 urte egin zituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Nereari**, hilaren 23an, bi urte egin zituelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



♦ Zorionak **ama**, hilaren 28an urteak beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Diego**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Zelako mutil handia! Gurasoen eta Paularen partez, egun ona pasa!



♦ Zorionak **Mariari**, 5 urte bete zituelako. Gurasoen partez.




♦ Zorionak **Yeray**, hilaren 26an, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Yaizaren partez.



♦ Zorionak **Julia**, zure urtebetez egunean. Familiakoen partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Paulari**, bihar, hilak 25, 3 urte beteko dituelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Tere eta Vicente**, uztailaren 24an zuen ezkontza ospatu zenutelako. Zoriontsu izan zaitezela, lagun guztien partez.



♦ Zorionak **Sarari eta Nereari**, abuztuaren 9an eta gaur, irailak 24, 9 eta 2 urte egin dituzuelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Garazi eta Ion**, hilaren 26an eta 28an zuen urtebetetzea delako. Inñigoren eta familiako guztien partez.

BEKAK

Beka orokorrak

Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka orokorrak prestatu ditu. Beka hauek baliabide ekonomiko eskasak eta ikasketak emaitza onuragarriak dituzten eta 2004/2005 ikasturtean EAEko edo Estatuko edozein ikastetxetan ikastera doazen goi-mailako irakaskuntzako ikasleentzat dira. Informazio gehiagorako: www.hezkuntza.ej-gv.net. Epea: urriak 15

Ikasketa ez unibertsitarioak

Eusko Jaurlaritzak 2004-2005 ikasturterako bekak antolatu ditu, unibertsitarioak ez diren ikasketak burutzen dituzten ikasleentzako. Laguntzak atal hauez osatuta egon daitezke: irakaskuntzarako laguntza, joan-etorrietarako edo egoitzarako laguntza, jantokirako laguntza, laguntza osagarria. Epea: urriak 15

IKASTAROAK

Debako Arte Eskola

Debako Arte Eskolak ondorengo kurtsoak eskaintzen ditu: harlanketa eta zurlanketa, zeramika, brontze galdaketa artistikoa eta grabatu kalkografikoa. Hauetz gain, klase teoriko praktikoak ere ematen dira, artearen historia eta forma eta kolorea. Informazio guztia www.debate.net web gunean

LEHIAKETAK

Ipuinak

Ereintza Kirol eta Kultur Elkarteak XXIII. "Erreterria Hiria" ipuin-lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaile bakoitzak 3tik 8ra folioko luzerako nahi beste ipuin aurkez ditzake. Bi modalitate: euskara eta gaztelania. 800 euroko sari nagusia eta 26 urtetik beherako onenarentzako 240 euroko sari berezia. Epea: urriak 31

EBidai interesgarriak

Arrasate, Bergara eta Oñatiko Gazteentzako Informazio Bulegoek "Gomendatzen dizut..." Saria antolatu dute. Bertara oporrei, aterpetxeen inguruko gomendioei, hiri interesgarriei, deskontuetarako txartelen erabilerari... buruzko idazlanak bidali beharko dira. Saria: EAEko Nekazal turismoko etxe batean bi pertsonentzako egonaldia. Epea: irailak 24

Elpuinak

Zumaiako Udalak XVII. Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketa antolatu du 18 urtetik gorakoentzat. 10 orritik gorako euskarazko ipuin original eta argitaratu gabeak aurkeztu beharko dira. 5.500 euro saritan. Epea: urriak 20

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

24 Ibañez
 25 Yudego
26 Yudego
 27 Etxeberria
 (Santa Ana kalean)
 28 Ibañez
 29 Yudego
 30 Zabaleta
 1 Etxeberria
 (Errosario kalean)

GAUEZ

Ibañez
 Yudego
 Yudego
 Etxeberria

 Ibañez
 Yudego
 Zabaleta
 Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

26 igandea Idarraga

Aiastia auzoko

(San Migel)

JAIK

IRAILAK 24, Barixakua

(Gazteen Eguna)

18:30 Kanpai jotzea auzotarrei jaien hasiera adieraziz

19:00 Poteoa bizikletan

21:30 Gazte afaria

24:00 Disko festa

Goizaldera, "Striptease"

IRAILAK 25, zapatua

17:00 Artzai Txakur txapelketa

22:30 Haritz Euskal Dantza Taldearen erakustaldia

Ondoren, erromeria "Luhartz" Taldearekin

01:00 Bolo Txapelketa

IRAILAK 26, domekia

11:00 Meza nagusia

Ondoren, Baltzola anaiak trikitilariak

17:00 Idi Demak

IRAILAK 29, eguaztena

11:00 Meza Nagusia

Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak

13:00 Auzoko bikoteen arteko XIX. Pilo-ta Txapelketaren azken partidua

Ondoren, "Gardoki" trikitilariak

20:30 Auzotarren afaria

Ondoren, erromeria "Gardoki"rekin

24 BARIXAKUA

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

3-8 bitarteko haur eta gurasoei zuzendua
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

25 ZAPATUA

10:00 AIXAKO KOBAZULORA
 IRTEERA

Irteera: Leizarpe Taldearen Santa Klarako lokaletik
 Antolatzailea: Leizarpe Espeleologia Taldea

16:00 EZKERTIAR ETA
 ABERTZALEEN ASANBLADA

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
 Antolatzailea: Ezker Abertzalea

16:15 MINTXETAKO FUTBOL
 ZELAIKO BERDEGUNE
 BERRIAREN INAUGURAZIOA

26 DOMEKIA

10:00 DEBARROKO
 HAURRENTZAKO XXX.
 PERRETXXIKO LEHIAKETA

Plaza Handian. Antolatzailea: Karakate Mikologi Elkarte

10:20 DEBABARRENAKO
 BIZIKLETA ITZULIAREN
 IRITSIERA ELGOIBARRERA

Antolatzailea: Debegesa

12:00 HONDARTZAKO TOAILA
 BAT GARRAIO PUBLIKOKO
 TXARTELEN TRUKE

Plaza Handian. Antolatzailea: Debegesa

1 BARIXAKUA

20:00 "PORTUGALEKO ITSASOAK"
 ARGAZKI ERAKUSKETAREN
 INAUGURAZIOA

Egilea: Luis Vioque / Kultur Etxean
 Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte



"Les Mans buides" (Las manos vacias)

Zuzendaria: Marc Recha.

Antzezleak: Dominique Marcos, Jeremie Lippmann, Olivier Gourmet.
 Canneseko jaialdiko "Un certain regard" sailean aurkeztua, Marc Recharen hirugarren film hau Jacques Tati edota Otar Iosselianiren lanak gogorarazten dituen komedia bitxia da. Kostaldeko herrirka batean kokatua, madame Catherinereen heriotzak biztanleen eguneroko bizitzan izango duen bat bateko eragina erakusten du. Jatorri ezberdinetako aktoreek antzezten dute, Eduardo Noriega eta Olivier Gourmet, tartean.

IKASTAROAK

Bio-dantza eta Yoga ikastaroak

Haizea Emakume Taldearen eskutik, Bio-dantza eta Yoga ikastaroak hasiko dira aurki. Rakel Ampudiak emango du Bio-dantza ikastaroa martitzenetan 15:00etatik 16:30etara. Yoga ikastaroa, berriz, Sanatana Dharma eskolako Gloria Santiagok eskainiko du. Klaseak martitzenetan eta eguenetan izango dira 17:00etatik 18:30era bitartean. Bi ikastaroek hiru hilabeteko iraupena izango dute eta 60 euro ordaindu beharko dira ikastaro bakoitzeko. Izen-ematea Pitxintxu dendan egin daiteke.

Garapen pertsonalerako ikastaroa

Emakunde eta Haizea Emakume Taldeak garapen pertsonalerako ikastaroa antolatu dute elkarlanean. Urrian hasiko da eta asteazkenetan izango dira klaseak 16:30etik 18:30era bitartean. Eskarne Larrinaga psikologo eta sexologia izango da hizlaria eta 40 orduko iraupena izango du. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero, jo Pitxintxu dendara.

Begirale titulua ateratzeko ikastaroa

Haurren aisialdian lan egingo duten begiraleak euskaraz formatzeko ikastaroa antolatu du Mendaroko Udalak, Debararrenako gainontzeko Udalekin batera. Ikastaroa betetzean, Eusko Jaurlaritzako begirale titulu ofiziala jasoko dute ikasleek. Izenemateko epea irailaren 28an amaitzen da. Informazio gehiago Mendaroko Udalean: 943 03 32 90. kultura@mendaro.net

ANTZERKIA

“A ze pare!” antzezlana

Maskarada Antzerki Taldeak “A ze pare!” antzezlana taularatuko du datorren urriaren 1ean, barixakuan, Herriko Antzokian. Saioa 22:15ean hasiko da eta sarrerak aurrez erosi ahal izango dira Kultur Etxean, goizez, 8 eurotan.

AISIALDIA

Aisialdiko ekintzak Mendaron

Kurtso berriarekin batera aisialdiko hainbat ekintza antolatu nahi ditu Mendaroko Udalak: yoga, balleta, tailerrak, e.a. Taldeak osatzeko, ordea, jendearen interesen berri jakin nahi dute aurrez. Iritzi eta proposamenak jasotzeko telefono bat jarri dute: 943 03 32 90 (9:00-13:00) eta urriaren 1a bitartean jaso ahal izango dira iritzi eta proposamen guztiak.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

“The Station Agent”

24, barixakua: 22:15

“Lady Killers”

25, zapatua: 19:30-22:15

26, domekia: 19:30-22:15

27, astelehena: 22:15

“Les mans buides” (Z.K.)

30, eguaztena: 22:15

EIBAR, Unzaga

“El bosque”

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 17:00-19:30-22:30

26, domekia: 17:00-19:30-22:30

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30-22:15

29, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

“El mito Bourne”

24, barixakua: 19:30-22:15

25, zapatua: 19:30-22:30

26, domekia: 19:30-22:30

27, astelehena: 19:30-22:15

28, martitzena: 19:30-22:15

29, eguaztena: 19:30-22:15

“Zafarrancho en el rancho”

25, zapatua: 17:00

26, domekia: 17:00

BARRENEK ez du gerta litekeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



“The ladykillers”

Zuzendaria: Joel Coen & Ethan Coen

Antzeleak: Tom Hanks, Irma P. Hall, Marlon Wayans.

Estatu Batuetako hegoaldeko irakasle eszentriko bat da lapur koadrila bitxi batetako buruzagia. “Bandit Queen” Mississippi ibaia zeharkatzen duen itsasontzi-kasino batean lapurreta egitea da beraien asmoa. Lapurretarako prestaketak antolatzeko apartamentu bat alokatuko dute eta susmo txarrik ez pizteko musika banda bateko partaideak direla esango diote etxejabeari. Hain zuzen ere, etxejabea bera izango da beraien asmoak egia bihurtzeko oztopo gehien jarriko dizkien pertsona.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra, argazkian agertzen den familiako senide batek laga digu. San Lorenzo bailarako Upai baserriko familia da hau, eta argazkia beraien baserri aurrean aterata dago. Erretratu hau 1937. urte ingurukoa da. Begira garai hartan ere, nolako argazki dotoreak ateratzen ziren! Ordu hartan anai arreba ugari izaten ziren familietan, eta ikus ezazue nolako familia ederra osatzen zuten hauek. Kirolari eta ehiztari ospetsuak izan ziren familia honetako kideak, eta gure herrian oso familia ezaguna izan zen. Kide guztiak jenio bizikoak eta oso indartsuak ziren. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak: (amak izan ezik gainontzeko guztiek Izagirre abizena zeukaten).

Goiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: **Gregorio** (†)(Atletismoan ibilitakoa), **Migel** (†), **Ramon** (†) eta **Martin** (†) (argazkia atera zutenean hilda zegoen dagoeneko).

Erdiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: **Florentina**, **Salbador** (†), **Frantziska** (†), **Jabier** (†) eta **Martzelina** (†).

Eserita, ezkerretik eskumara: **Inazio** (†) (1920. urtean, Anbereseko Joku Olinpikoetan parte hartu zuen, eta Espainiako Txapelduna izan zen hainbat urtetan disko, pisu, jabalina jaurtiketan...), **Pedro** (†) (aita), **Manuela Etxaniz** (†) (ama) eta **Maria** (†)(urte askotan Errosario kaleko Ama Birjinaren azpian denda izan zuen). Txakurrak **Pin** zeukan izena.



ESKERTZA

2004ko irailaren 18an, 95 urte zituela hil zen,
SOTERA ZUBIAURRE GARITAONANDIAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Belaustegi
Baserria**



JATETXEA



Ondo pasa jaiaak!

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02 · www.belaustegi.com

SAN MIGEL JAIK

*Azken ere gure azoket jailetara
gostidatzen zaituztegu. Eskaintzen dizuegun
Menu berezia honakoa da:*

Aperitiboa

Foie moussea konpota eta modenarekin

Bakailao entsalada piperrekin

Ganba handiak plantxan

Bakailao-kokotxak piperradarekin

Solomilloa Pedro Ximenez saltsan

Pantxineta morazko izozkiarekin

34 € + BEZa (edariak aparte)

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador
Santa Klara



Neinor

NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

☎ **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
4 logelako duplexak behelalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua
hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

ANTZERKIA

Sarritsutan, bikotekideen arteko tirabiren lekuko izaten dira etxeko txokorik "goxoena", sofa, komuna, edota logela. Bikote ororen bizimodu arrunta une eta jazoera gazi-gozoz jantzirik egoten da, eta horixe aurkezten digu ikuskizun honek, umorearen olio-ozpinaz ondurik.



A ze PAREA!

"LA GUERRA DEL SOFÁ" MANUEL HIDALGO letra. CARLOS PANERA musikatu eta zuzendua.

Maskarada

Urriak 1, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA

ANTZERKI MUSIKALA

Ane Monna Oskola eta Karramarroi



Urriak 24, igandea
16:30ean
Herriko Antzokian



EUSKO JAURLARITZA



SAREA